



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BANDOA

Herritar guztiei jakinarazi nahi dizuet **Larraulgo Haurreskolan izena emateko epea** irekiko dela hurrengo **maiatzaren 2tik 13ra (biak barne)**.

Matrikula orriak eskuratzeko Haurreskolara bertaratu behar duzue astelehenetik-ostiralera goizeko 9etatik arratsaldeko 3rak arte.

Matrikula orriak betetzeko kontutan izan behar duzue ondorengo ohar garrantzitsuak:

- Eskabidean datu guztiak bete.
- Eskabidearekin batera aurkezten den dokumentazioa bakarrik kontutan hartuko da.
- Ez da dokumentazio gehiago onartuko eskabideak aurkezteko epetik kanpo.

Edozein zalantza argitzeko ondorengo telefonora deitu dezakezue:

943.69.37.94

Besterik gabe, berri hau zuen gustokoa izango delakoan, agurtzen naiz.

Larraulen, 2011ko apirilaren 12an.

ALKATEA
Xabier Mujika Pagola